



[www.becoop-project.eu](http://www.becoop-project.eu)

## Bioenergia?

Bioenergia materia organiko bizitik datorren, energia-eskaera gero eta handiagoa asetzen laguntzeko eskuragarri dugun Energia-Iturri Berriztagarri ugarietako bat da.



Malgua eta fidagarria da, erraz biltegitatu eta garraiatu daitekeena, eta gehienbat tokian-tokian ekoizten denez, bioenergiak eragin sozioekonomiko positiboa du, enpleguaren sorrera areagotuz, erregai fosilen mendekotasuna gainditzeko trantsizio energetikoaren prozesua berrmatuz, eta petrolio, gasa eta iktatza ordezkatzuz elektrizitatearen eta berokuntzaren sektoreetan.

## Komunitateak?

Energia-komunitateak eta energia berriztagarrien kooperatibak (RESCoop) herritarrek zuzendutako ekimenak dira, energia berriztagarriko proiektuen jabetza eta kudeaketa herritar horiek kolektiboki bideratzen dutelarik. Proiektu hauek, onurak ekartzen dizkie bazkideei zeintoki-komunitateei ingurumen, ekonomi eta gizarte alorretan. Energia-eredu garbi baterako trantsizio eraginkorrako, justuago eta demokratikoagoa sustatzeaz gain, badituzte beste onura batzuk ere:



## BECoop

Pertsonen ahalduntzean oinarrituta bidezko energia-sistema bat lortzeko bidean, BECoop 2020-2023 proiektuak (zein Horizon 2020 programa europarrak finantzatzen duen) xede du bioenergia berriztagarria tokian-tokian sortzeko ardura ematea komunitateei, komunitateko bioenergiaren merkatu potentziala azalera eta aprobetxatzeko beharrezko baldintzak ezarri eta laguntza-tresnak emanez, elkarte berrien sorrera sustatuz.

## Jarduera gakoak

Bioenergiaren bidez berokuntza komunitarioa garatzen laguntzeko, BECoop proiektuak:

**Merkatuaren azterketa egingo du eta teknologia bioenergetikoak garatzeko akuiluak eta oztupoak identifikatuko ditu**

**Bioenergiaren komunitate-merkatuaren potentziala aztertuko du**

**Bioenergiako komunitate-proiektuak garatzen laguntzeko baliabide, tresna eta zerbitzu tekniko eta enpresarialak sustatuko ditu**

**Bioenergia bidezko berokuntza-komunitate berriak sortuko ditu, bioenergiaren eskaria bultzatuz**

**Komunitate-bioenergiaren ekosistemaren eta haren aukeren garapena berrmatuko du, komunikazio-kanpainen eta bestelako ekitaldien bidez**

**Komunitate-bioenergiaren ekosistema sendotuko du, Europa osoan zabaltzeko asmoz**

**Maila guztietako arduradun politikoak inplikatuko ditu (eskualdekoak, nazionalak eta EBkoak)**

## 4 proiektu pilotu

4 kasu piloturi esker, bioenergia bidezko komunitate-berokuntza sustatzeko planaren aplikazioa probatzen ari da BECoop-ek, gerora Europar Batasuneko beste kasu batzuei transferitu aurretik. Proiektuak kontzeptu hau erreproduzitu eta zabaltzeko moduari buruzko frogak eskaintzen ditu. Hauek dira gure proiektu pilotuak:

- Iturri berriztagarri bidezko elektrizitatearen salerosketan diharduen RESCoop baten kasua bere jarduerak bioenergia bidezko berokuntzara zabaltzea planteatzen duena (Espainia).
- Lehendik dagoen RESCoop batek –zeinek pelletak ekoizten dituen–, biomasaren hornidura-katea zabaltzea eta bere jarduerak bioenergiaren ekoizpena zabaltzea planteatzen duena (Grezia).
- Udal jakin bat bioenergiaren bidezko berokuntzari buruzko RESCoop berri baten garatzeko lana sustatzen ari dena, komunitate-energiak eta energia berriztagarriaren bidezko berokuntzak gaur egun oso garapen-maila txikia duten eskualde batean (Polonia).
- Energia-arloko agintaritza bat hiri-berokuntza sareetako enpresekin sinergian diharduena lanean, ekoizpen/kontsumo partekatuko eredu bat ezartzeko asmoz (Italia).

## 4 lanabes

**Ezagutzak elkar trukatzeko plataforma bat,** nolabaiteko leihatila bakarra, eskualdeen eta sektoreen arteko lankidetzaz-oztopoak ezabatu, eta informazioa eta ezagutzak partekatzeko.

**BECoop autoebaluazio-tresna,** komunitate-bioenergiaren egoera eta potentziala ebaluatzeko, gomendatutako ekintza teknikoaren eta enpresa-ekintzen bidez.

**BECoop tresnen inbentarioa,** kode irekiko tresnen online biltegi bat, komunitate-bioenergiako proiektuak garatzeko beharrezkoak diren laguntza-zerbitzuak osatuko dituena.

**Bioenergiaren RESCoop merkatu elektronikoaren ingurunea,** hornidura-kateko alderdi interesatuak konektatu, eta komunitate-bioenergiako proiektuen garapenean lagunduko duena.

## ... Eta askoz gehiago

2

**Katalogo –teknikoa eta enpresariala– BECoopi buruz**

1

**Komunitate-bioenergiaren alorreko eredu inbentarioa**

+20

**Aztertutako energia-komunitate**

1

**Komunitate-bioenergiaren alorrean interesatuen sarea**

4

**Komunitate bioenergetiko garatu berri**

8

**BECoop kontzeptuaren erreproduzio-kasu**

4

**BECoop ibilbide-orri politiko nazional**

1

**BECoop ibilbide-orri politiko, EBkoa**

1

**Erreproduzio-eskuliburu bat, proiektuaren emaitzak beste eskualde-ingurune batzuetan aplikatzeko**

## Harremanetarako datuak



[BECoopH2020](#)



<https://www.linkedin.com/company/becoop-h2020>



<https://www.facebook.com/BECoop-H2020>




[www.becoop-project.eu](http://www.becoop-project.eu)



**Proiektuaren koordinazioa:**  
**White Research**  
[contact@becoop-project.eu](mailto:contact@becoop-project.eu)

## Proiektuko bazkideak



BECoop proiektuak Europar Batasunaren Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren finantziazioa jaso du, 952930 zenbakiko dirulaguntza-hitzarmenaren bidez.